IRAILAK 1, OSTIRALA

18:00etan **JAIEN HASIERA etxaflero jaurtiketarekin (Osintxuko pirotekniaren eskutik).**

18:15etan **Bizikleten prestaketa eta mozorro desfilea Osintxuko kaleetan.**

18:30etan **PLAENTXIARA IRTEERA Osintxuko plazatik abiatuta. Han merienda ederra izango dugu zain!**

20:15etan **SAKATU ELEKTROTXARANGA (mozorro eta guzti!). Poteo animosoa Sakatu elektrotxarangaren erritmoan!**

21:00etan **Buruhandiak herri osoan zehar**

22:00etan **II. OSINTXUN MUSIKARA! LEHIAKETA. Musika talde edo bakarlarien arteko lehiaketa estilo librean.**

Lehiakideak : RED IRON SQUAD (Gasteiz) , BOLBORA (Lizarra) eta POMERAY (Bilbo) .

1:00ak inguruan: **ESKEAN KRISTO talde gonbidatuaren KONTZERTU bikaina!!**

Sari banaketa 2:30ak aldera izango da:

Lehenengo saria: 500 €

Bigarren saria: 200 €

Ikuslegoaren saria: 300€-ko "bale" bat Danatek musika dendan gastatzeko

IRAILAK 2, ZAPATUA

11:00etan **UMEENTZAKO JOLASAK. Plazan hasi eta herriko txoko desberdinetan gozatu.**

12:00etan **KOADRILEN ARTEKO JOKOEN eguerdia. Poteoan tabernarik taberna jolas dibertigarriak Unai eta Ander trikitilariek giroa animatu bitartean. Saria egongo da, beraz parte hartu!**

15:00retan **KOADRILEN ARTEKO BAZKARIA FRONTOIAN. Irten bazkariarekin kalera. Jai batzordeak mahaiak eta janaria berotzeko suak jarriko ditu.**

15:00-18:00: **PUZGARRIAK: Haur eta gaztetxoentzako puzgarriak. Gurasook bazkal osteko dantzaldian gozatzeko aukera ezin hobea izango duzue aurten!**

18:00etan **SUKALDARITZA LEHIAKETA. Piztu suak eta erakutsi daukazuen artea! Aurten Indioilar Erregosia barazkiekin. Irabazlearentzat saria egongo da: bi pertsonarentzako otordu bikaina Oñatiko Torre Zumeltzegi hotelean.**

18:00-19:00: **APAR FESTA. Haur, gazte eta helduentzako apar festa Euskalduna tabernaren aurrealdean. Akordatu bainujantzia, betaurrekoak eta txanoa ekartzen!**

19:00etan **TOKA TXAPELKETA. Zenbat eta jende gehiago apuntatu orduan eta sari potoloagoa egongo da!**

21:30etan **HERRI AFARIA. Urdaiazpikoa, Indiatik bertatik ekarritako oilar erregosia ortuko barazkiekin goxatuta (Indioilar erregosia) eta postre sorpresa. Sarrerak salgai Euskalduna tabernan eta Txuringon.**

23:00etan **SARI BANAKETA. (Mozorrorik onena, sukaldaritza lehuiaketa, koadrilen arteko jokoak etab.)**

00:00etan **ERROMERIA HONAT TALDEAREKIN. Dantzatu, kantatu eta ase egarria beldurrik gabe!**

IRAILAK 3, DOMEKA

03:00etan **SUA PIZTEA. Salda magikoa egiteko sua piztuko da.**

05:00etan **KULERO, KANTZONTZILO ETA TANGA LASTERKETA. Iazko eztabaida ikusita aurtengoan epaile profesionalak egongo dira foto finisherako. Sari bikaina egongo da azkarrenarentzat!**

06:30etan **SALDA MAGIKOAREN BANAKETA. Gaupaseroen argazkia aterako da, ea nork igotzen duen lehenengo Selfie-a - Instagram / Facebook / Twitter-era….**

10:30etan **Iratzargailu berezia: DIANA BERGARAKO TXISTULARIEN eskutik.**

12:00etan **MEZA NAGUSIA Osintxuko elizan.**

12:30etan **BERGARAKO ZEZENAK. Bergarako Miura zezenak eta poniak Osintxuko plazan. Ea nor animatzen den plazara irteten!**

12:45etan **KARITATE BANAKETA. Mezaren irteeran karitatea banatuko da.**

13:30etan **POTEOA ETXEKOEKIN DISFRUTATUZ. Kontuz tabernetan galtzeke!**

17:00etan **PILOTA PARTIDUAK Osintxuko "MARTIRES jai-alai" pilotalekuan. Jokalarien izen abizenak jaien aurreko astean ezagutaraziko dira.**

19:00etan **PINTXO POTE BEREZIA. Euskalduna tabernan zuzeneko "urdaiazpiko moztea" (eta platerkadatxoa jateko aukera ezin hobea). Txuringon Egurtza eta Untzutako gaztaren zapore bikainaz gozatzeko aukera.**

19:00/20:00: **SARIA OSINTXUKO URREZKO KOFRADEARI. Unai Zubizarreta iazko kofradeak pasatuko dio testigua eta urte guztirako ohorea.**

22:00etan **JAIEI AMAIERA EMATEKO ETXAFLERO JAURTIKETA. Erretiroa agudo antzean bihar astelehenari indarrez ekiteko.**

Oharrak:

- **Eskerrik asko Osintxuko ludotekako umeoi egin duzuen marrazki polit horrengatik. Zuek bai artistak!**